

**BESTE BALIABIDEEK ESTALTZEN EZ DITUZTEN BEHARRIZANEI BIDERATUTAKO
DIRU-LAGUNTZETARAKO 2020. URTEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRI
ESPEZIFIKOAK
ESPARRUA: GIZARTE
ONGIZATEA
IN-E 180/04-19**

UDAL ERAKUNDEA:	Gizarte Ongizaterako Saila
INSTRUKTOREA:	Gizarte Ongizaterako Saileko gizarte langileak
BALORAZIO BATZORDEA:	Herritarrak batzordea
DIRULAGUNTZA EBATZIKO DUEN ORGANOA	Alkatetza Dekretua
EBAZPENA JAKINARAZTEKO EPEA	Deialdian zehaztuko den eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hilebeteko epea egongo da.
DIRU-LAGUNTZAREN LERROA	Gabeziak dituzten eta baldintza bereziak betetzen dituztenei laguntza ematea.
KODEA:	
AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO DIRU- KOPURUA:	Urteko aurrekontuan jasotako kopuruaren arabera.
HELBURUAK	Gizarte Bazterkeria eta Eskubide Sozialen Gutunean agertzen diren baliabideek estaltzen ez dituzten gabeziak dauzkaten pertsonen laguntza puntual eta osagarria eskaintzea. Herriko desoreka soziala zuzentzea eta bardintasun soziala bermatzea.
EPEA:	Eskariak aurkezteko epeak, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko diren deialdietan zehaztuko dira. Justifikazioak aurkezteko epeak, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko diren deialdietan zehaztuko dira.
BALORAZIO IRIZPIDE ZEHATZAK:	<ul style="list-style-type: none"> Laguntza hauek borondatezko diru laguntza izaera daukate eta helburu jakin baterako dira, beraz, helburu horretarako baino ezin dira erabili eta Bermeoko Udaleko aurrekontuetan helburu horretarako kreditua esleituta egotearen baitan egongo da laguntza ematea ala ez. Laguntza hau ez da bateragarria izango administrazio publikoak eskaintzen dituen laguntza publikoekin. Gehienez aurkeztu behar izanaren %60a lagunduko da diruz eta hori ezin izango da 2.100 euro baino gehiago izan. <p>Laguntza eskaria hainbat kontzepturengatik aurkeztu ahal izango da eta eskariaren kopurua, kontzeptu desberdinetako behar izanaren kopurua guztira kontuan hartuta kalkulatu da.</p>



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E50007645500F9R110D1J7P7

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOZA ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 04/08/2021
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 05/08/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/08/2021
08:16:47

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0170

Fecha: 05/07/2021

Lekua: Bermeon

Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E50007645500F9R110D1J7P7



HIZKUNTZA IRIZPIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> • Diruz lagunduko diren elkarteen eta udalaren arteko ahozko eta idatzizko harremanak, ahal den kasu guztietan euskaraz bideratuko dira. • Egunerokotasunean erabiltzaileei informazioa helarazteko edo herritarrei zuzenduta erabiltzen dituzten informazio kanaletan ere euskara erabiliko da posible den kasu guztietan (Whatsapp taldeak, posta elektronikoa sare sozialak...) • Hizkuntza irizpideak azaltzeko, "elkarte" terminoa erabili da, baina irizpide hauek diru laguntzaren onuradun guztiek bete beharrekoak dira, diru laguntza hartuko duten pertsona fisiko eta juridiko pribatu guztiek betetzekoak, hain zuzen ere.
ESKATZAILEAK:	<ul style="list-style-type: none"> • Laguntza hauek hartu ahal izango dituzte, gizarte beharrian egoeran dauden pertsonak eta familiek edo babes sozialeko beste sistema batzuetatik laguntzarik ez dituztenek. • Eskatzailea gutxienez Bermeon 3 hilabetez egon beharko da. • Eskatzaileak ezin izango du udalarekin inolako zorrik eduki.
DIRUZ LAGUNDUKO DIRAN KONZEPТУAK	<ul style="list-style-type: none"> • Laguntza hauen bidez diruz lagungarriak diren kontzeptuak bi dira: <p>a) Estimulazio goiztiarra bermatzeko laguntza: 6tik 14 urte bitarteko umeentzako errehabilitazio (fisikoa eta psikologikoa) tratamenduek eragindako gastuak ordaintzeko laguntzak dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Derrigorrezkoa izango da ezintasun edota mendekotasun egiaztagiria aurkeztea. <u>Salbuespena:</u> 6 urte baino lehenago Bizkaiko Foru Aldundiak eskaintzen duen estimulazio goiztiarrari buruzko zerbitzuko parte hartzailea izatea. • Tratamendua agintzen duen medikuaren txostena eta aurrekontua edo/eta faktura ere aurkeztu beharko dira. • Bizikidetzeta unitatean estimulazio goiztiarraren beharrian duen adin txikiko bat baino gehiago balego, bakoitzeko eskari bat egin beharko da. <p>b) Beste laguntza publiko batzuk estaltzen ez dituzten larrialdi eta urgentziadun egoerei erantzuna emateko laguntza: Gizarte Langileak egingo duen txostenaren arabera beste baliabide batzuk estaltzen ez dituzten larrialdi eta urgentzia moduan baloratzen diren egoerak lagunduko dira.</p>



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E50007645500F9R110D1J7P7

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 04/08/2021
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 05/08/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/08/2021
08:16:47

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0170
Data: 05/07/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E50007645500F9R110D1J7P7



**PROZEDURA ETA
AURKEZTU
BEHARREKO
DOKUMENTAZIOA:**

• **Prozedura: Konkurrentzia lehiakorra baina konparaziozko balioespenik barik.**

- Eskarien hurrenkerara, sarrera erregistroaren arabera izango da.
- Laguntzaren izaera dela eta ebazpena egitean bizikidetzaren unitatearen diru sarrerak ez dira aintzat hartuko.
- Eskaria egiten denerako eskatzaileak eginiko gastuen fakturak edo ordainagiriak aurkeztu beharko ditu. Bestalde, gastu batzuk urtean zehar egiten direnez, eskaria aurkezten denean oraindik gastua egin gabe badago, gastu hori egitearen beharrezana justifikatzen duen agiri ofiziala ere aurkeztu beharko da.
- Laguntza jaso eta jakinarazpenean zehaztuko den epearen barruan eta zehaztutako moduan, jasotako diru- laguntzaren zuriaketa egin beharko da

• **Aurkeztu beharreko dokumentazioa:**

A) Dokumentazio orokorra:

1. Deialdian argitaratuko den eskaera inprimakia.
2. Gurasoen edo ordezkari legalaren eta adingabeen NAN edo AIZ agiria.
3. Eskatzailearen eta familiaren errolda kolektiboaren egiaztagiria

B) Dokumentazio espezifiko:

a) Estimulazio goiztiarra bermatzeko laguntzaren kasuan:

1. Desgaitasun edo/eta mendekotasun ziurtagiria. .
Salbuespena: 6 urte baino lehenago Bizkaiko Foru Aldundiak eskaintzen duen estimulazio goiztiarrari buruzko zerbitzuko parte hartzailea izatea.
2. Tratamendua agintzen duen medikuaren txostena
3. Gastuaren faktura edo/eta aurrekontua
4. Gastu batzuk urtean zehar egiten direnez, eskaria aurkezten denean oraindik gastua egin barik badago, gastu hori egitearen beharrezana justifikatzen duen medikuaren txostena eta tratamenduaren kostuaren aurrekontua, ere aurkeztu beharko da.

Oharra: Bizikidetzaren unitatean estimulazio goiztiarraren beharrezana duen adin txikiko bat baino gehiago balego, bakoitzeko eskari bat egin beharko da.

c) Beste laguntza publiko batzuk estaltzen ez dituzten larrialdi eta urgentziadun egoerei erantzuna emateko laguntzaren kasuan:

1. Larrialdi eta urgentziadun egoera baloratzeko gizarte langilearen txostena.
2. Egoera horri erantzuna emateko beharrezkoa den gastuaren faktura edo/eta aurrekontua.
3. Egoerak behar izango balu, dagokion profesionalaren txosten tekniko edo proposamen tekniko.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E50007645500F9R110D1J7P7

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOZA ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 04/08/2021
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 05/08/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/08/2021
08:16:47

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0170
Data: 05/07/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia


CSV: 07E50007645500F9R110D1J7P7



AURREIKUSITAKO KOSTUAK PROGRAMA HONETAN	Urteko aurrekontuan jasotako kopuruaren arabera.
SEGIMENDU ETA EBALUAKETA EGITEKO BEHARREZKO INDIKATZAILEAK	<ul style="list-style-type: none"> • Eskatzaile kopurua • Emandako dirulaguntza kopurua • Ezeztatutako kopurua • Emandako dirulaguntzen zenbatekoa
LOTUTAKO AGIRIAK:	Eskaera eta justifikazioa egiteko eranskinak deialdiarekin batera argitaratuko dira.
GENERO ERAGINA	Bat ere ez
1/1982 LOaren ARABERA ARGITAGARRIA EZ DEN EMAKIDA BAI/EZ	Maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoa, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren intimitaterako eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzkoa.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikulua arabera), Aritz Abaroa Cantuariense alkatearen aginduz eta oneretxiaz.

Orrri-oinean sinatzailea eta data



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E50007645500F9R110D1J7P7

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 04/08/2021
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 05/08/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/08/2021
08:16:47

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0170
Data: 05/07/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E50007645500F9R110D1J7P7

